



# Batera ibiliz

## Batera ibiliz elkartearen kontuen egoera (2016ko ekitaldia)

### Diru-sarrerak: 50.103€

Batera Ibiliz elkartearen sarrera guztiak jendearen ekarpenen fruitu dira, beren konfiantza eskaintzen baitiote Soya egitasmoari; horri esker gara burujabe. Lehenik, Soya egitasmoko kideek proposatzen dute diru hori nola erabili, eta, gero, haiek eta Batera Ibiliz elkarteak batera adosten dute zer egin.

**Aparteko ekarpena:** 39.000

**Bazkideen dohaintzak:** 9.935

**Kolektiboen dohaintzak:** 1.168

**Material medikoaren dohaintzak:** glukometroa, otometroa, fonendoa, larrialdietako maletaxoa eta bestelakoak.

### Gastuak: 46.072€

Gaur egun arte egin diren gastuak proiektuaren honako fase hauekin daude lotuta: lehen fasean, osasun-zentroa eraiki; bigarren fasean, altzariak ipini eta martxan jarri. Gaur egun, Batera Ibiliz zentroko langileen soldataren arduraduna da (hiru osasun-langile eta zeladore/ambulanzia-gidari bat); geure elkartearen kontuak EDE fundazioko aholkularitza-zerbitzuek kudeatzen dituzte.

Elkarteko kideek borondatez egiten dituzte elkarte mantentzeko lanak (diruzaintza, webgunearen diseinua eta edukiak, ekitaldiak antolatzea, aholkularitza teknikoak, bertako egonaldiak, etab.), eta, era berean, kideek hartzen dituzte beren gain halako lanen ondoriozko gastuak.

**Osasun-zentroa eraikitzea:** 31.485

**Soldatak, abuztutik-abendurarte:** 2.528

**Material medikoa, altzariak eta farmaziaren zuzkidura:** 4.683

**5 putzutako uraren analisi bakterologikoa eta kimikoa:** 598

**Jama Jigi lantzeko laguntza:** 1.355

**Ibilgailuak erostea (moto-ambulanzia eta etxeko bisita egiteko motoa):** 3.262

**4x4 bat alokatzea eta gasolioa Soyana:** 1.186

**EDE fundazioa:** 624

**Bestelakoak:** 351

### Kontuko saldoa (abenduren 31n): 4.031€

## 2017ko gastuen aurreikuspena

2017ko ekintzarik handiena honako hau izango da: edateko uraren bi iturri, bata osasun-zentroan eta beste bat publikoa, herriarentzat (aurrekontuaren zain). Zentroa oinarritzko materialez hornitzea premiazkoa da, hala nola, material medikoa eta kirurgikoa esterilizatzeko autoklabea; armairua, farmaziarako; hozkailua, botikak tenperatura egokian gordetzeko; eta abar. Era berean, premiazkoa da Soya herriko Jama Jigi elkarteari laguntza ematea.